

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Bergara urdina

BOTEREA eraikitzen zuten jantzien koloreek. Batek baino gehiagok galduko zuten lepoa tindagaiak eskuratzeko ahaleginetan. Espezia garestienena bezala, tindagai trafikoa gobernatzea guda eta okupazio aitzakia izan zen. Esate baterako, kukurrutxa gorri-gai amerikarrak gerra ontzitan Espainiaratzea agindu zuen Felipe III.ak. Alferrrikako errege alferrontzi haren idazkari Mateo Urkina bergararra aritu zen. Bergaran ere nagusiak txapela, boneta, birrete, mitra gorritz ibiliko ziren, baina urdina nagusi. Ehungintzaren euskal historian ezin ahantzi “Bergara urdina” deitzen dena. Simancaseko artxiboan omen dago Espainiako alferrontzi katolikoek, 1497an, dagoenerako, Bergarako ehungileen ordenantzari beren oniritzia ematen dioten dokumentua. Nola urdintzen ote zituzten orduan kotoizko ehun sonatuak?

Horretarako genuen urdin-belarra, *Isatis tinctoria*. Landare horren hostoak txikitu eta hartzituta sortzen da tindagaia. J. Crawford batek, Royal Anthro-



pological Institute of Great Britain and Ireland-en eskutik 1869an argitaratutako *On the history and Migration of textile and tinctorial plants in reference to Ethnology* artikuluan, haren erabilera zaharraren lekuko jartzten du euskaraz duen urdin-belarra izena. Asia aldetik etorritako landare horren lehen arrastotak Neolitokoak dira,

Frantziako Audoste leizekoak. Duela 2.500en bat urteko Europa erdialdeko hilobi ugaritan topatutako jantziak urdin-belarrez urdinduta daude. Agi denean, zeltek borrokarako soina urdinez margotzen zuten. Soina estali ahala, ehunek eta haien tindagaiak gero eta garrantzi handiagoa. Urdin-belarra Frantzian eta Alemanian lantzen zen, batik bat. Alemanian, Erfurten unibertsitatea, eta Frantzian, besteak beste, Amienseko katedrala eta Tolosan makina bat jauregi galant eraiki zen belar honen sosekin. Industria aberats haren lekuko, oraindik ere Tolosa inguruari *Pays de la Cogne* deitzen zaio, hau da, pagotxaren edo mantxungaren lurra.

1902

Aljeriako Oran hiriaren aldamenen frantziar fraideek zuten umezurztegian negu oro berritzen den historia polita abiatu zen 1902an, izenak berez “toki beroa” adierazten duen Misserghin herrian. Clément Rodier fraideak zurtzetako mutil kozkor koardila bat fruitu ezezagun batzuk gozamenaz jaten “harrapatu” zituen. Eta berari ere gustatu... Fruta-arbola txertoz ugaldtu eta bere ohorez Klementina deritzan mandarina barietatea zabaldu zuen: erraz zuritzen den azal gorritzta eta hazi urriko aleak dituen.

Gerora Asiatik ekarritako laranja mikatzaren (*Citrus aurantium var. amara*) eta mandarina arruntaren arteko hibrido zaharra dela jakin da, Saigonen, Txinan eta Japonian ezagunak diren beste barietate batzuen ahizpa bixkia. Fraidearen izena ez du galdu horregatik.

